# LUZARO BIZI ZAITIA

JOAKIÑ MUÑOZ BAROJA-RI:

*Gau lenetik zan, lo neguela*
*esna ninduben ametsak,*
*biyotzetikan bultzada batez*
*mogituz nere sayetzak;*
*pizkortasunak alaiturikan*
*osa nituben gai ezak,*
*artaz aurrera birikaspoen*
*ekintzak ziran errezak.*

*¿Zer zan gertatzen nigan orduan*
*ainbeste pozen jabetzez?*
*neska perkachik ez leike poztu*
*ni aña bere obetzez;*
*egun zurean urte muga nai*
*nuke gaur goitu urbeltzez,*
*bladiñ ez bazait atzik chingurtzen*
*nekean bidez ubeltzez.*

*Joakiñ: barkatu baldiñ utsegiñ*
*badet, nik nai det pakia,*
*au da biyotzan gordekai on ta*
*bizitz lasayan atia;*
*zure aurchoak ama dezela*
*ta zuk emazte maitia,*
*osasun ona lagun dezula*
*luzaro bizi zaitia.*

JUAN IGNACIO URANGA

1911-ko Abustuan.